



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

**GIZARTE ZIENTZIAK ETA
ZUZENBIDEA**

**ETB ingurune inklusiboa
euskararentzat**

Marijo Deogracias-Horrillo

19-26 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.02>

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



ETB ingurune inklusiboa euskararentzat

Deogracias Horrillo, M.

NOR Ikerketa Taldea

mariajose.deogracias@ehu.eus

Laburpena

ETBk euskararen irisgarritasuna bermatu behar du euskara ulertzen ez duen jendeari ere aukera emanez edukiak uler ditzaten, eta horretarako azpidatziak eskaintzea lagungarri litzateke. Berdin euskara gutxi ulertzen dutenen kasuan ere, jatorrizko hizkuntzaren lagungarri litzatekeelako idatzizkoa. Eta, nola ez, entzuteko arazoak dituztenek ikus-entzunezkoetara sarbidea izan dezaten duten eskubidea bermatzeko. Horretarako ere balio baitu idatzizko bertsioak. Bidenabar, ulergarritasuna bermatzen den bitartean, euskara entzun egingo litzateke (eta ez bikoiztearen kasuan bezala, ezkutuan geratu). Horregatik uste dugu, ETB baliatu beharko litzatekeela ikus-entzunezko itzulpengintzan erabiltzen den teknologia eta irisgarritasun tresnez, hizkuntza gutxitura sarbidea emateko diskriminaziorik gabe eta aukera berdintasunean. Horixe erakusten saiatuko gara lan honetan.

Hitz gakoak: euskara, telebista, irisgarritasuna, teknologia

Abstract

ETB must guarantee the accessibility of the Basque language giving the opportunity also to people who do not understand the language and it would be helpful to offer subtitles. The same for those who understand little Basque, as it can help to access to the original version. And of course, to guarantee the right of access to audiovisual media to hard-of-hearing people. The written version also serves this purpose. On the other hand, Basque would be heard while ensuring its understanding (and would not be hidden as in the case of dubbing). So we consider that ETB should take advantage from AVT (Audiovisual Translation) technology and also accessibility tools, to encourage the minority language, without discrimination and in equality of opportunities, and that is what this research wants to show. That is what this research wants to show.

Keywords: Basque, television, accessibility, technology

1. Sarrera eta motibazioa

Azpidatziak berreskuratzeko erabakia hartu du Euskal Telebistak, bai lehenengo (ETB1), bai bigarren (ETB2) kanalean; alegia, euskaraz nahiz gaztelaniaz¹. Erabakia, ordea, eta ikusiko dugun bezala, ez da planifikatua izan eta, ondorioz, ez da inondik inora bermatzen azpidatziak erabilgarriak izatea, ez entzumen arazoak dituzten pertsonentzat, ezta hizkuntza ulertzeko arazoak dituztenentzat ere. Izan ere, EiTbK ez du erabaki azpidatziek izan beharko lituzketen ezaugarrien inguruan, ez bederen bikoizketekin bere egunean egin zuen bezala (Barambones, 2005; Zabalondo, 2013) —nahiz eta estilo liburuan, eta albistegiei dagokiela, bai zehazten den nolakoak izan behar diren azpidatziak (EiTb, 2016: 169)—. Baina, gainerako programazioari dagokionez, eta 2019tik aurrera hasitako azpidatzi-eskaintzari gagozkiola, EiTbK ez die jarraipenik egiten, ez azpidatziak jasotzen dituztenean, ez emisioan ondo doazen ikuskatzeko orduan ere. Are, EiTbK azpidatziak sortzeko balio duen teknologia erabiltzeko eskatu die telebista saioak ekoizten dituzten ekoiztetxei —Vicomtech teknologia enpresak garatu duen ahots errekonozimendu bidezko testuak sortzeko teknologia— eta, era horretan, ekoiztetxeen ardura bihurtu da azpidatzien ekoizpena.

Lan honek erakutsi nahi du azpidatziak eskaintzeko EiTbK hartu duen erabakia egokia izanagatik ere —euskara irisgarriago izan dadin lagun dezakeelako, eta entzumen arazoak dituzten pertsonen eduki horietara sarbidea izateko eskubidea bermatzea ahalbidetzen duelako—, praktika horrek antolatua izan behar duela. Alegia, alde aurretik definitu behar direla bai helburua, bai azpidatzien ezaugarriak (ikus-entzunezko irisgarritasunean erabiltzen diren parametroen barruan, eta euskara hizkuntzaren ezaugarrietara egokituta). Horiek, beraz, azterlan honen hipotesiak: alde batetik, azpidatziak eskaintzeko erabakia egokia da, eta aukeraz betetako bidea ekar diezaioke euskarari; baina, bestetik, EiTbK ez du inolako planifikaziorik egin eskaintza hori zertarako eta nola landuko duen zehazteko, beraz, ez dago estrategiarik, eta hori aukera galdu

¹ EiTbren datuen arabera, 2019an ETB1en edukien % 18 azpidatzi zen; ETB2n % 46; ETB3n %58 eta ETB4n, berriz, %18.

bat da. Izan ere, azpidatziak, ikus-entzunezko ingurune batean eta hizkuntza gutxitua edo ez hegemonikoa duen eremu batean, ezinbesteko laguntza dira. Gainera, azpidatzien erabileraren eta bere balioaren inguruan ikus-entzunezko itzulpengintzaren esparruan asko ikertu bada ere, batez ere ikus-entzunezko itzulpengintzaren esparrutik eta entzumen arazoak dituzten pertsonen eskubideak bermatzeko ikus-entzunezko irisgarritasunetik (Luyken, 1991; Ivarsson, 1992; Díaz Cintas, J., Matamala, A., & Neves, J., 2000; Orero, 2005; Chaume, 2004), ez da berdin gertatu hizkuntza gutxituen irisgarritasuna bermatzeko izan dezaketen potentzialari buruz.

Lan hau, ikerketa zabalago baten parte da. 2015ean azpidatzien neurketekin hasi zen, ETB eta espainiar estatuko telebista jeneralistek egiten zuten hizkuntza eskaintza zein zen aztertzeke eta, ikus-entzunezko irisgarritasunarekin betetzen ote zuten ikertzeke. Hark eman zigun heldulekua irisgarritasuna are modu zabalagoan hartu eta hizkuntza gutxituetara sarbidea ahalbidetzeko berme gisa ulertzeko. Bitarte horretan, itzulpengintza automatikoari esker, teknologia erraztu egin du azpidatzi automatikoak sortzeko lana eta Euskal Telebistak ere bide horri heldu dio. Horretarako Vicomtech teknologia enpresak garatutako teknologia erabiltzen hasi da, eta teknologia hori erabiltzeko aukera eskaintzen ekoiztetxeei. Hori dela eta, egokia iruditu zaigu ikerketan aurrera egiteko, ekoiztetxeek sortzen dituzten azpidatziak aztertzea, batetik, eta, bestetik, ikus-entzunezko irisgarritasunean beste herrialde eta telebista publikoak egiten ari direna aintzat hartzea.

Hala, artikulua honetarako zenbait ikerketa teknika konbinatu dira: aipatutako bibliografiaren errebasoarekin batera, Euskal Telebistaren programazio arduradunarekin elkarrizketa bi egin dira, EiTbBrentzat lan egiten duten telebista-saio ikusien lau ekoiztetxeek propio egindako galdetegia erantzun dute, eta telebista kanalen emisioen grabaketak egin dira —astebetez, 24 orduz jarraian—, zenbat eta zer azpidatzi den ikusteko eta bigarren audio kanalaren erabilerarik egin den ikuskatzeko; ez alferrik, atzerriko film eta dokumentalen kasuan, telebista kateek bigarren audio-kanalean jatorrizko hizkuntza eskaintzen dute, audiodeskripzioa egiten ez denean (Deogracias & Amezaga, 2016).

Datu horien guztien azterketak eman digu aukera ulertzeko zein den Euskal Telebista azpidatziez egiten ari den erabilera. Eta antzeman diren gabeziek (sinkronizazio arazoak, akatsak itzulpenean, irisgarritasun arauen ez definizioa...) ikerketaren hurrengo urratsak zehazten lagundu digute. Hala, hurrengo urratsetan, ikerketak bide emango digu telebista publikoaren euskarazko azpidatzien egokitasuna zehazteko eta haien erabilera zabaltzeko proposamena egiten.

Halaber, ikerketa honek aukera ematen digu euskaraz sortutako ikus-entzunezko edukiak gaztelaniazko telebista kanalean txertatzeko azpidatzien aukera bideragarria den ikusteko eta, era horretan, EiTbB, bere osotasunean, ingurune inklusibo bilakatzeko euskararentzat.

2. Arloko egoera eta helburuak

ETB 1982an sortu zen euskarazko kanal bakarrarekin². Hasiera hartan, 16 eta 65 urte bitarteko herritarren artean euskararen ezagutza Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan % 24,07 zen, % 33,09 Iparraldean eta % 9,55 Nafarroan) (Eustat, 2011). Egoera hartan, eta euskaraz eskaintzen zen ikus-entzunezko edukia ahalik eta jende gehienarengana heltzen zela bermatzeko, azpidatzi interlinguistikoak erabiltzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak: euskaraz entzuten zena gaztelaniaz azpidatzen zen. Izan ere, eta Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 legeak dioen bezala, “Herritar guztiei aitortzen zaie gizarte-hedabideen aldetik euskaraz zein gaztelaniaz informatuak izateko eskubidea. Horretarako, hedabideetan euskararen presentzia areagotzera bideratutako neurriak hartuko ditu Jaurlaritzak, hizkuntza ofizial bien erabilera arian-arian berdintzeraino” (22. artikulua). Konpromiso horren azken parteak, berebiziko garrantzia izango du Euskal Telebistak geroxeago hartu zituen erabakiei begira. Eta Euskal-Irrati Telebista Herri-Erakundea sortzeko 5/1982 legeak jaso zuen (3 Atala, h), “Kulturaren eta euskararen sustapena, euskara erabiltzearen xedetarako, oinarritzko egitarau sortaratuak ezarri, orotariko eskaintza mailan Elkarrekin Autonomiadunean euskaraz irrati-telebistazko emankizunen oreka beharra kontutan izanik”. Testu legalak, ordea, ez zuen zehaztu oreka hori zelan mantenduko zen. Beraz, eta esan bezala, euskaraz ziren edo euskaraz bikoizten ziren telebista-saioak gaztelaniaz azpidatzen ziren (Barambones, 2011), bai legearekin betetzeko, baita euskara sustatzeko ere, “azpidatziak lagungarri izango zirelako euskara maila baxua zuenarentzat” (Etxebarría, 1994: 193).

² "Euskal-Irrati Telebista" Herri-Erakundea sortzeko Maiatzaren 20ko 5/1982 LEGEA.

Praktika horrek 3-4 urte iraun zituen, harik eta euskararen normalizazioa bermatzeko tresna gisa sortu zen ETBri gaztelania hutsezko bigarren kanal bat gehitu zioten arte. Ondorioz, gaztelaniazko itzulpenak beharrezko izateari laga zion, eta desagertu egin ziren euskarazko kanaletik (Larrinaga, 2019). Erabaki horrek, eten egin zuen zeharo ikus-entzunezko azpidatziek gurean izan zezaketen garapena, eta baztertu egin zituen zerbitzu publikotik entzumen arazoak zituzten pertsonak ere. Eta nola ez euskara ikasteko azpidatzen laguntzaz baliatzen zirenak ere (Larrinaga, 2000). Ezin baitugu ahaztu, Euskal Autonomia Erkidegoa bikoizketaren eremuan kokatzen dela, espainiar eta frantziar estatuekin, Italiarekin, Alemaniarekin edo Austriarekin batera (Gambier & Sumoela-Salmi, 1994) eta espainiar estatuan, frantziar estatuan bezala, nazioarteko zinema hizkuntza hegemonikora bikoiztuta kontsumitzeko ohitura dagoela (gaztelania eta frantsesa). Euskaraz sortutako zinemarekin ere, hala gertatu da Espainiako zinema-aretoetan eta baita gurean ere: banatzaileek publiko gehiago izateko aitzakiarekin, bikoizketaren aldeko hautua egin dute sarri askotan, azpidatzitako jatorrizko bertsioaren kaltetan (Chaume 2004: 53). Tradizio horrek, aukera berdintasunean lehiatu nahian, areagotu egiten du hizkuntza gutxituen ikusezintasuna espainiarrez egindako bikoizketen alde. Ildo berean, telebistarako fikzioa gaztelaniaz eskaini denean ere, bikoiztuta izan da, dena delakoa dela jatorrizko hizkuntza. Ohitura horri jarraituta, ETB2k jarraitzen du ETB1en eskaintzen den fikzio propioa (serieak) ez emititzen, ez bikoiztuta, ezta azpidatzitara ere. Kanal biak bizkarra emanda ari dira arlo horri dagokionez, eta hori oztopo bilakatu daiteke euskal telebista publiko inklusiboa izateko bidean. Beste modu batera esanda, ETB1ek euskal hiztun osoentzat bakarrik funtzionatu du, albo batera lagata partzialki euskaldunak direnak; halaber, ETB2k ez dio apenas lekuri egin euskarari, hizkuntza koofiziala ere badenari.

Espainiar estatuak, hizkuntza gutxitu edo ez hegemonikoak dauden beste herrialdeek bezala, bere arau eta legeak garatu ditu ikus-entzunezko kontsumo eta emisioari dagokionez. Askotan erreferentzia egiten zaio hizkuntza gutxituek izan behar duten tratamenduari telebista publikoan eta horietako batzuk Eskualdeetako edo Gutxitutako Hizkuntzen Europako Gutunaren bidez fiskalizatzen dira (Perez eta Deogracias, 2021). Hala ere, hizkuntza gutxituaren ikusgarritasuna bermatzeko jarduera horiek ez dute bilatzen irisgarria izatea entzumen edo ikusmen arazoak dituzten pertsonentzat, edo hizkuntza ezagutzen ez dutenentzat. Alegia, ez da aintzat hartzen audientziaren zati bat. Eta bazter lagatzen da audientzia hazteko aukera, eduki horietara sarbidea bermatuta. Askoz nabarmenago geratzen da hori plataforma digitalen zabalkundearen garaiotan, non geroz eta gehiago diren mundu guztian zehar hizkuntza guztietako edukiak kontsumitzen dituzten ikus-entzuleak azpidatziak baliatuz (Agirre, 2021). Izan ere, plataforma horien kontsumoa hedatzen joan den heinean, areagotu egin da azpidatzen sorkuntza, baita hizkuntza txikietan sortutako ikus-entzunezkoen kontsumoa ahalbidetzeko ere. Hori dela eta, planteatu nahi dugu ikus-entzunezko irisgarritasuna —dagoeneko eskubide gisa aitortua— hizkuntza-irisgarritasun gisa (UNCRPD, 2014)³. Hala, “irisgarritasuna giza eskubideak lortzeko printzipio proaktibo gisa interpretatzeak ere ghettoaren efektua saihesten laguntzen digu” (Greco, 2016: 11). Eta ez bakarrik desgaitasunen bat duten pertsonen eta adinekoen lagungarri delako bizitza sozial eta kulturean parte har dezaten, ikus-entzunezko zerbitzu irisgarriak eskainita; baizik eta aitorpen-eskubide gisa. Bazterketarik ez sustatzeko. Alegia, audientzia-ghettoak saihesteko. Ez bakarrik Europar Batasunaren Ikus-Entzunezkoen zuzentarauak aitortzen duen eran —“ezgaitasuna duten pertsonen eta adinekoen komunitatearen bizitza sozial eta kulturean parte hartzeko eta integratzeko duten eskubidea, ezinbestean, ikus-entzunezko zerbitzu eskuragarrien eskaintzarekin lotuta dago. Irisgarritasuna lortzeko bitartekoek izan behar dituzte, hala nola, zeinu-hizkuntza, azpigituluak, audioaren deskribapena eta erraz ulertzeko moduko menuko nabigazioa, horretara mugatu gabe” (AVMSD, 2018)—. Baizik eta hizkuntza gutxituei aukera zabaltzen dielako. Onuragarria delako hizkuntza gutxitua ez dadin bere erabiltzaileei bakarrik mugatu, eta harago zabal dadin, hizkuntza- eta kultura-aniztasunari eta eleaniztasunari lagunduz. Era berean, balioko luke ikus-entzunezko eduki irisgarria hizkuntza nagusi eta txikien topaleku eginez. Bide horretan, “pentsatzekoa da irisgarritasunaren onurek, baita gutxiengoaren hizkuntzak ere azpidatzen bidez, hizkuntza ikasten laguntzen dutela (...), eta hizkuntza transferitzea funtsezko lekua dela Europako ikus-entzunezko sektorearen garapenean —kultura- eta hizkuntza-aniztasunak bat egiten dute hor—” (Andersen, 1995: 4).

Pentsa liteke euskarazko edukiak gaztelarazko komunikabideetan zabaltzearen aldeko apustua egin beharra dagoela eta, era berean, urratsak eman euskaldunak ez diren herritarrek ere hurbil daitezen euskarazko edukietara, euskarako hedabideen bitartez (Narbaiza, 2016: 363-364). Testuinguru horretan, adierazgarria da Galesko S4C telebista publikoak abiatutako bidea, hango gobernuaren helburuarekin lerratuta: “S4C-k funtsezko eginkizuna du galesen hizkuntza sustatu eta garatzeko, Galesko Gobernuak 2050erako milioi bat hizlari galestar edukitzeko helburuari laguntzeko” (Papagiannouli & Davies, 2018: 11).

³ Desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideen protokoloa 2006an onartu zen Nazio Batuetan ([A/RES/61/106](https://www.unhcr.org/refugees/article/43a66666.html)).

Hala, helburu horretara iristeko onartu duen plangintzan adostu dute; besteak beste, Galesko sormen-industriak babestea eta hizkuntza gutxituetan ari diren ekoizleekin harremanak hobetzea —bereziki ekoizle zeltak—, informazioa eta praktika onak partekatzeko eta elkarlanerako aukerak bilatzeko (idem, 2018: 11). Bide horretan, gehitu egin dute azpidatzitako ordu kopurua, bai galeseraz, bai ingelesez: “S4Cren programak erakargarriagoak dira ingelesezko azpidatziak jarrita. Azpidatziak egokiak dira galiar hiztun ez direnetzat, etxean hizkuntza mistoa dutenentzat eta entzumen arazoak dituztenentzat. S4Cren programen %80an daude eskuragarri ingelesezko azpidatziak” (SC4⁴). Eta onartutako dokumentuan esaten denez, “Gales hizkuntzako azpidatzi-zerbitzua zuzenduta dago gales ikasleei nahiz entzumen arazoak dituzten Galesko ikus-entzuleei, ikasleei eta galeseraz hitz egiteko konfiantzari ez dutenei S4Cren programez gozatzeko. Azpidatziak galeseraz eskuragarri daude S4Cren 7-8 ordu bitarteko programetan” (SC4)⁵. Ez baita “gauza bera hizkuntza hegemonikoetan sortutako ikus-entzunezkoak azpidatzita ematea (JBA, jatorrizko bertsio azpidatziak), edo eremu urriko hizkuntzan sortutako produkzioak beste hizkuntza batzuetan azpidaztea. Lehen kasuan, ikus-entzuleak hizkuntza hegemonikoa entzuten du, eta gutxitua irakurtzen. Bigarren kasuari dagokionez, alderantziz gertatzen da: eremu urriko hizkuntza entzuten da, eta beste hizkuntzan (normalean, hizkuntza hegemonikoan) azpidatzitakoa irakurri behar du”, (Zabalondo, Deogracias eta Azpillaga, 2020: 211).

Gaur egun teknologia berriek ahalbidetzen dituzte hautazko azpidatziak, edo hizkuntza desberdinetara bikoiztutako edukien audio-kanalak aukeran eskaintzea, eta horretaz baliatzea ezinbesteko deritzogu, euskarazko edukiak hizkuntz komunitate baten eskubideez harago euskal hiritar guztiak izan ditzan jomugan (Narbaiza, 2016: 364).

3. Ikerketaren muinak eta ondorioak

Hasieran aipatu bezala, ETBk azpidatziak berreskuratu ditu, 30 urte beranduago, emisio kanal bietan. Hala, “euskarazko emanaldietara iristeko zailtasuna izan dezaketen ikusleengan pentsatuta, ETBk euskarazko azpidatziak eskaintzen ditu” (Larrinaga, 2019: 262). Baina azpidatzi horiek ez dira saio guztietan eta modu erregular batean eskaintzen, ezta lantzen ere. Izan ere, ETBk modu esperimentalean ekin zion azpidazketari 2019an, eta oraindik ez du azpidatzien eskaintza inon iragartzen. Azpidatziak ikusteko, telebistako emisioetan urrutiko agintearen bidez aktibatzen dira azpidatziak. Nahieran webgunean, EiTren atari digitalean, ere eskaintzen dira azpidatziak, eta hor ere norberak aktibatu behar izaten ditu, aukerakoak baitira. Aipatzekoa da, fikziozko eduki batzuen kasuan, azpidatzi elebidunak eskaintzen direla; hala nola, *Hondar Ahoak* (Txintxua Films, 2020) telebista seriean, non ekoiztetxeak euskarazko nahiz gaztelaniazko azpidatziak ekoitzi dituen. ETB1en emisioa egin zenean euskarazko azpidatziak eskaini ziren.

Azpidatziak eskaintzeko ETBren erabakian zeresan handia izan dute itzulpegintzaren teknologietan egin diren aurrerapenak. 2019an, esaterako, euskarazko katearen emisio guztiaren % 18 azpidatzita eskaini zuen ETB1ek; gaztelarazko katean % 46, ETBk berak emandako datuen arabera. Gure ikerketaren barruan egindako grabaketetan batutako datuekin bat datoz ETB1en ehuneko horiek; ez, ordea, ETB2renak, goranzko joera nabarmena izan baitu. 2020ko otsailaren 21etik 27ra bitartean (24 ordu, 7 egunez) egindako jarraipenak erakutsi du programazioaren % 17 azpidatzi zuela ETB1ek denbora horretan; ETB2k, berriz, % 61,23. Aipatzekoa da, azpidatzitako saio gehienak, errepikak eta alde zurretik grabatutako saioak izan zirela eta, era horretan, 16 telebista saioetatik 12ri gehitu zizkieten azpidatziak 2019ko emisioetan, ETB1en kasuan. Zuzeneko azpidatziak albistegietan bakarrik eskaintzen ditu Euskal Telebistak. Kanpoko beste enpresa batek sortzen ditu, gidoietatik abiatuta eta azpidatzi irisgarrientzat AENOR erakundeak emandako irisgarritasun arauari jarraituta (UNE 153010:2003). Gainerako programazioan, aldiz, ez da aintzat hartzen ikus-entzunezko irisgarritasunari eragiten dion aipatu araua.

⁴ <https://www.s4c.cymru/en/access-services/page/5854/english-subtitles/>

⁵ <https://www.s4c.cymru/en/access-services/page/5857/welsh-subtitles/>

1. taula. ETB1en azpidatziak dituzten saioak (2020)

ETB1-SAIOAREN IZENA	AZPIDATZIAK
Txoriene	EZ
Teknopolis	BAI
Sustraia	BAI
Hitzetik hortzera	BAI
Eitb ultura Transit	BAI
Artefaktua	EZ
Helmuga	EZ
Gure Kasa	BAI
Ahotsak	BAI
Ur Handitan	BAI
Arimaren Margolaria	BAI
Herri Txiki Infernu Handi	BAI
Dantzatzen den herria	BAI
Itxi liburuak	BAI
Mara-mara / Abentur@aroa	EZ
Iturria: ETB	


Kuantitabikoki hazi egin bada ere azpidatzien presentzia, eta 2010eko ikus-entzunezko legeak X. xedapenean dioenarekin betetzeko ahalegina badagoen arren —2013tik aurrera irekian emititzen duten estatuko eta erkidegoetako telebistek edukien % 75 azpidaztea ezgaitasunak dituzten pertsonentzako (7/2010 legea: 19)—, gabezia azpimarragarri bat antzeman dugu egindako ikuskapenetan: azpidazketak esperimentala izaten segitzen duenez ez du inongo irizpide tekniko, linguistiko, ezta politiko-kulturalik jarraitzen. Euskal Telebista sortu zenean, azpidatziak “beharrezko euskara-maila ez zeukaten herritarrengan pentsatuta” (Larrinaga, 2019: 184) izan baziren, gaur egun ez da estrategiarik edo planifikaziorik hauteman azpidazteko erabakian. Are gehiago, Euskal Telebistarentzat saioak egiten dituzten ekoiztetxeen esku laga da azpidatziak sortzeko ardura, eta nahiz eta ia guztiak ari diren Vicomtech-ek garatutako IDAZLE tresna erabiltzen, ETBk ez du azpidatzien ezaugarrien inguruko araurik edo argibiderik inon jaso. Ondorioz, ekoiztetxe bakoitzean azpidatziez arduratzen ari den pertsonaren irizpideen arabera osatzen dira azpidatziak, eta pertsona horiek ez dira ez azpidatzietan, ezta itzulpegintzan adituak, haiek erantzundako galdetegiak adierazi digunez: “Ez gara hizkuntzan adituak”, “Egokitasun aholkuak faltan: azpidatzien ezaugarriak” edo “Azpidatzien inguruko balorazio bat jasotzea, irizpideak zehaztea; alegia, ondo ari garen jakitea” izan dira galtegia jasotako erantzunetako batzuk.

Gaur egun ekoiztetxeen azpidazketaren kalitatea ez da gero telebistan ikuskatzen. Adibidera, galdekatutako ekoiztetxe bakar batek adierazi du euskararekin lotutako irizpideak jaso zituela ETBko euskara zerbitzutik (ikus 2. taula). *Herri Txiki Infernu Handi* saioan euskalkian berba egiten duten herritarrak elkarriketatzen direnez, horri lotuta hainbat adierazpen nola jaso aholkatu zitzaizkien, euskara batuaren irizpideetara lerratzeke, baina baita, transkribatzailearen interpretazioak zuzentzeko (ikus 2. taulako 9.oharra).

2. taula. Herri Txikiren azpidazketak (ETB)

Programa	Honela diote	Honela azpidatzi da	Azpidatzi egokiagoak
Herri Txiki (Elizondo)	(ez da jaso)	Lagunak eduki zenituen? Laguna, “a punta pala”.	–Lagunak eduki zenituen? –Lagunak, “apunta plana” (1)
Herri Txiki (Eskoriatza)	–Azkenean bultzaka. –Bai, azkenean bultzaka. Behetik gora orain ere... Hauxe da Eskoriatzako plaza.	Azkenean bultzaka. Bai, bultzaka. ***** Beti gora. Hauxe da Eskoriatzako plaza.	–Azkenean bultzaka. –Bai, behetik gora. ***** Hauxe da Eskoriatzako plaza (8)
Herri Txiki (Eskoriatza)	Onbre, bi patxo eta hala ez ditu inork hartzen. Holako	bi patxo ez ditut inoiz hartzen!	Bi patxo ez ditu inork hartzen!
	mutila izanda, gainera.	***** Mutila izanda, gainera gutxiago. Ondo hartzen dira. (9)	***** –Honelako mutila izanda, gutxiago. –Ondo hartzen dira? (9)
(1) Egoki da beste hizkuntza batzuetan esaten diren gauzak komatxo artean transkribatzea. (8) Testu idatziak zentzua izan behar du. Egoki da, beraz, esaten den baino gauza sinpleagoa transkribatzea, baina, lehenik eta behin, nahitaezkoa da esaten dena ondo ulertzea. (9) Transkribatzailearen interpretazio okerrak zaildu egiten du testua ulertzea.			

Esan bezala, lan hori egiteko Vicomtech⁶ teknologia zentroak sortutako IDAZLE tresna erabiltzen dute ekoiztetxeek. Tresna horrek, ahots errekonozimenduaren bitartez, automatikoki sortzen ditu transkripzioak eta testu horiek birpasatzeko eta ontzeko ardura ekoiztetxe bakoitzarena da. IDAZLEn arduradunek azaldutakoaren arabera, sistemak telebista saioak irauten duenaren herena behar du entzuten dena testu bihurtzeko; alegia, azpidatziak sortzeko. Ekoiztetxeen artean egindako galdetegian jasotako datuen arabera, ordubeteko saio bat azpidatzeko 4-5 ordu behar izaten dute (hasieran 10-12 orduko ziren).

1. irudia. IDAZLE tresnaren itxura (Vicomtech)

Goiko irudian ikus daitekeenez, edizio sistema baten bitartez automatikoki sortutako testuak editatu daitezke, eta nahi beste aldaketa egin eta sinkronizazioa egokitu daiteke. Hala ere, ikuskatu ditugun saioen emisioetan, sinkronizazio-arazoak ere antzeman dira, saioen jarraipen egokia zailduz ikus-entzuleari.

⁶ Vicomtech-en patronatu-kidea da EITB. 2000. urte amaieran sortu zen proiektua INI fundazioak eta EITBk sustatuta (<https://www.vicomtech.org/es/vicomtech/estructura-interna>).

4. Etorkizunerako norabidea

Uste izatekoa da, tresna hobetzen doan heinean ere, sinkronizazio arazoak gutxitzen joango direla. Baina, era berean, uste dugu ETBri dagokiola jasotzen duen edukia ikuskatzea, emisioaren aurretik, eta, behingoz, irisgarritasuna aintzat hartuz definitzea bere hizkuntza politika. Izan ere, hizkuntza zuzentasunetik harago, euskarazko azpidatzen aldeko apustua estrategikoa izan beharko litzateke, bai entzumen arazoak dituzten pertsonentzat, bai euskara ikasten ari direnen prozesua laguntzeko. Horregatik diogu ezinbestekoa dela azpidatziak ikuskatzea eta horren aurretik, irizpide garbiak zehaztea haien ezaugarrien inguruan.

Halaber, azpidatzi intralinguistikoez gainera, azpidazketa interlinguistikoa ere bideragarri egin beharko lukeela uste dugu. Alegia, ETB2n euskarari ikusgarritasuna emateko azpidatzi interlinguistikoak erabiltzea (audioa euskaraz eta azpidatziak gaztelaniaz). Hasieran aipatu bezala, horrek norabide bitan lagunduko luke: euskara ulertzen ez duen jendeari euskarazko edukiez gozatzeko aukera emanez, eta euskarari entzunarazia izateko aukera emanez, baita hizkuntza ezagutzen ez dutenenentzako ere. Are gehiago, zergatik uko egin euskaraz ekoiztako fikziozko edukiekin audientzia gehiagorengana iristeari? Ez dugu ahaztu behar 16 urtetik gorakoen % 55,2 ez dela euskal hitzuna, ezta euskaldun hartzailea ere (Inkesta soziolinguistikoa, 2016), eta audientzia zabal horretara iristeko aukera paregabea izan daitezkeela azpidatziak.

Amaitzeko, ikus-entzunezko irisgarritasunaren legea eta hizkuntza eskubideak eskutik joan beharko lirateke, hizkuntza politika egoki bat definituko bada; are gehiago, ikus-entzunezkoen kontsumoa bizitzen ari den eraldaketa aintzat hartzen badugu, non plataforma digitalek geroz eta garrantzia handiagoa hartzen ari diren. “Ingurune berriaren ondorioz, neurririk hartzen ez bada, arriskua dago ikus-entzunezko zerbitzu publikoak baztertuta geratzeko, edo telebista-zerbitzu huts izatera mugatzeko (EBU, 2002), edo beste modu batera esanda, gettho bihurtzeko (Greco, 2016).

Era horretan, azterlan honen abiapuntuan adierazitako hipotesiak berretsi direla deritzogu: ETBren azpidatziak eskaintzeko erabakia egokia da, baita euskararen normalizaziorako ere, baina Euskal Telebistak ez dauka gaur egun azpiatzien inguruko estrategiarik. Horregatik guztiagatik, ikus-entzunezko sektorearen, hizkuntza akademiaren eta telebista publikoaren elkarlana sustatu beharko litzateke azpidatzen ezaugarriak zehaztu eta definitzeko, entzumen arazoak dituzten pertsonen elkarteak ere aintzat hartuz. Era horretan euskara hizkuntzaren ezaugarriak, ulergarritasuna eta irisgarritasuna bermatuta euskal telebista inklusiboa izateko.

5. Errefentziak

- Andersen L. (1995): “The Translation of Film Titles”. *Sequentia*, 2(4):4.
- Agirre, K. "Minority languages and the streaming revolution: the case of Basque cinema on Netflix", *Communication&Society*. 2021. [prentsan].
- AVMSD (2018): *Directive 2018/1808 of the European Parliament and of the Council of 14 November 2018*. [https://eur-lex.europa.eu/eli/dir/2018/1808/oj].
- Barambones, J. (2005): “Euskarazko ikus-entzunezko itzulpenaren historia: ETB-lerako itzulpen- egokipena eta bikoizketa”. *Senez*, 28, 77-94, 2005.
- (2011): “Una mirada telescópica al cine en euskera: versiones originales, dobladas y subtítuladas”. *Hermēneus. Revista de Traducción e Interpretación* Núm. 13, 1-22, 2011.
- EBU (2002): *Media with a Purpose. Public Service Broadcasting in the digital era. The Report of the Digital Strategy Group of the EBU*.
- Chaume, F. (2004): *Cine y traducción*. Madrid: Cátedra, 2004.
- Deogracias, M. and Amezcaga, J. (2016): "Linguistic Accessibility for Small Language Cinema." *International Journal of Sociotechnology and Knowledge Development (IJSKD)*, 8(2), 16-26. doi:10.4018/IJSKD.2016040102.
- Díaz Cintas, J., Matamala, A., & Neves, J. (2010): *New insights into audiovisual translation and media accessibility: Media for all 2*. Rodopi. Leiden, The Netherlands: Brill. 2010.
- Espainiako Gobernua, (2010): *Ley 7/2010, de 31 de marzo, General de la Comunicación Audiovisual, BOE*, 79, de 1 de abril de 2010, Madril.
- Etxebarria, I. (1994): “Doblaje y subtitulación en Euskal Telebista”, in F. Eguiluz, R. Merino, V. Olsett eta E. Pajares (arg.), *Transvases culturales: literatura, cine y traducción*. Vitoria-Gasteiz: Universidad del País Vasco, 1994, 191-197.
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa (2016): VI. Inkesta Soziolinguistikoa, Donostia.
- [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ikerketa_soziolinguistikoak/eu_def/adjuntos/VI_INK_SOZLG_EAE_Aurkezpen_publicoa_20161014.pdf]

- Eustat (2018): Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleria, hizkuntza-gaitasunaren arabera lurraldeari eta adinari jarraiki. 1991-2016. Eusko Jaurlaritz. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Inkesta Soziolinguistikoa [https://eu.eustat.eus/elementos/ele0009500/euskal-herriko-16-urte-edo-gehiagoko-biztanleria-hizkuntza-gaitasunaren-arabera-lurraldeari-eta-adinari-jarraiki/tbl0009564_e.html]
- Eusko Jaurlaritz (1982): Euskal-Irrati Telebista" Herri-Erakundea sortzeko Maiatzaren 20ko 5/1982 LEGEA. EHAA 71. Gasteiz.
- Gambier, Y.; Suomela-Salmi, E. (1994): "Subtitling: A type of transfer", in: Eguíluz, F., Merino, R., Olsen, V., Pajares, E., Santamaría, J.M. (arg.) Transvases culturales: literatura, cine, traducción. Vitoria-Gasteiz: Universidad del País Vasco, 1994, 243-252.
- Greco, Gian Maria. (2016): "On Accessibility as a Human Right, with an Application to Media Accessibility", Matamala, A. and Orero, P. (Arg.), Researching Audio Description. New Approaches. Bartzelona, 11-33. doi: 10.1057/978-1-137-56917-2_2.
- Ivarsson, J. (1992): *Subtitling for the Media: A Handbook of an Art*. Transedit, Simrishamn.
- Larrinaga Larrazabal, A. (2019): "Euskal Telebistaren sorrera, garapena eta funtzioa euskararen normalizazioaren testuinguruan", doktorego tesia. UPV/EHU.
- , (2000): "La subtitulación en ETB-1". Proceedings of Mercator Conference on Audiovisual Translation and Minority Languages. Mercator. 2000.
- Luyken, G., (1991): *Overcoming Language Barriers in Television: Dubbing and Subtitling for the European Audience*. The European Institute for the Media, Düsseldorf. 1991.
- Narbaiza Amillategi, B. (2015): "Komunikazio-ereduak, hizkuntza eta euskal telebistagintza", doktorego tesia. UPV/EHU.
- Orero, P. (2005): "La inclusión de la accesibilidad en comunicación audiovisual dentro de los estudios de traducción audiovisual". *Quaderns. Revista De Traducció*, (12), 173-185.
- Papagiannouli & Davies (2018): "The Future of Welsh-language broadcaster S4C: Funding and Remit" [<https://blogs.lse.ac.uk/medialse/2018/04/18/the-future-of-welsh-language-broadcaster-s4c-funding-and-remit/>]
- Perez, M.; Deogracias, M. (2021): "Barriers and opportunities for cinema distribution in European minority languages. The case of O que arde in the Digital Single Market", *Language & Communication* 76, p. 154-162, Pergamon, doi:10.1016/J.LANGCOM.2020.11.006.
- Sabarís Martín, Rosa M., Cantalapiedra, M., Zalbidea, B., eta EiTB (2016): EiTBren estilo liburua: informazioa eta aktualitatea. Bilbo. ISBN 978-84-940427-6-8
- S4C, Acces Services (2020): Retrieved April 20 2020, from <http://www.s4c.cymru/en/access-services/page/5857/welsh-subtitles/>
- Zabalondo, B.; Deogracias, M.; Azpillaga, P: (2020): "EUVOS. Europako Kultur Ondare Immateriala.Europako hizkuntza ez-hegemonikoetan azpidazteko egitarau baterantz", *SENEZ*, 51, 207-220. ISSN 1132-2152.
- Zabalondo Loidi, B. (2013): "Ikus-entzunezkoen itzulpengintza euskaraz: bikoizketa lanbide", *UZTARO* 85, 73-96, doi: 10.26876/uztaro.85.2013.4

6. Eskerrak eta oharrak

- Eskerrak adierazi nahi dizkiot Josu Amezaga Albizuri, nire tesi proiektuaren zuzendariari.
- Lan honek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntz politika eta Kultura sailaren diru-laguntza jaso du (IT-881-16) eta ALMA Red de Excelencia sobre I+D+I para accesibilidad y lenguas minoritarias en los medios audiovisuales ikerketa-proiektuan elkarlanean egiten ari garen lanaren parte da (ED2018-102475-T).